

# SARRIKO

Ekonomia eta Enpresa Fakultatea

Facultad de Economía y Empresa



# 2022

31. ZK.



NAZIOARTEKO  
BIKANTASUN  
CAMPUSA  
CAMPUS DE  
EXCELENCIA  
INTERNACIONAL





## FAKULTATEKO DEKANO TALDEA

**Jon Barrutia Güenaga**

Dekanoa

**Henar Díez Sánchez**

Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Idazkaria

## DEKANOAREN TALDEA (EGOITZA)

**Izaskun Ipiñazar  
Petralanda**

Egoitzako Dekanorde  
Kordinatzailea eta Gizarte,  
Etengabeko Prestakuntza  
eta Enpresa Harremanetako  
Dekanordea

**Jon Charterina Abando**

Nazioarteko Harremanetako eta  
Mugikortasuneko Dekanordea

**Javier García Enríquez**

Akademi Antolakuntzako  
Dekanordea

**Unai Tamayo Orbegozo**

Euskara, Ikasleen eta  
Enplegarritasuneko Dekanordea

**Elena Catalán Martínez**

Kalitate, Ikasketa Berrikuntza eta  
Ekintzailtzako Dekanordea

**Elena Martínez Tola**

Graduondoko Dekanordea

# Aurkibidea

**2020-2021 Promozioaren Graduazioa** 4

**Jarduerak** 5

**Mintegiak , Jardunaldiak eta Kongresuak** 8

**Ekonomistak erakundearekin lankidetzatza** 12

**Enpresekiko harremana** 13

**Sariak eta aintzatespenak** 15

**In memoriam** 19

***“Aldaketa garaiak dira, edo are garaien aldaketa. Tentsio intelektualean eduki nahi dugu beti gure osagai aspirazionala. Sarriko ez da geldirik egongo aldaketa horien aurrean”.***



**Jon Barrutia Güenaga**

Urte hau, 2022a, pandemiatik berreskuratutako normaltasunerako trantsizio urtea izan da. Alabaina, energia iturri egonkorretatik eta kontrolpeko inflaziotik energia baliabideen urritasunera eta inflazio nabarmenera iristeko trantsizio urtea ere izan da. “Hurbiltasun gerra” testuingurua ahaztu gabe. Horrek guztiak eragin zehatza eta espezifikoa du ere (lan egutegiak, ixteko aldiak, energia aurrezkoa...) gure bizitza akademikoan. Garai bakoitzak bere “ingurune zurrumbiltsua” du, eta gaur egungoa intentsitate handikoa da.

Unibertsitateko kideen bizitza akademikoaren asaldatzeko gai diren faktoreen bat egite horrek, ordea, ez dio eragotzi fakultateari gizartearen eskakizunei erantzun egoki bat ematea irakaskuntzan, ikerketan eta transferentzian.

Zentzu berean, ohiko bizitasuna berreskuratzen joan gara, eta horri esker ospatu ahal izan ditugu, besteak beste, graduazio ekitaldia, erretiratuen eta zerbitzuan 25 urte bete dituztenen aitortza, eta Gabonetako topaketa. Dena den, giro emozional berriaz jabetu behar dugu, eta leku bat egin behar diegu bertan ikasleek, irakasleek eta AZPko langileek bizi izandako egoeren inpaktuei. Ezin aipatu gabe utzi, bestalde, joan zaizkigun adiskideen hutsunea, haien absentsia nabaria baita dagoeneko orain.

2023. urteari begira, ikasketen eskaintzari erreparatuta, erronka sendoak ditugu gure tituluak eta gradu bakoitzak finkatzeko eta eraldatzeko. Horregatik, hain zuzen, garrantzitsua da irakasleen plantilla nahikoa eta egonkorra edukitzea. Horri lotuta, legezko aldaerak ez ezik, eboluzio demografikoa ere kontuan hartu behar dugu.

Aldi berean, graduondoko eskaintza, zeina zabala eta interesgarria baita, barne gogoeta une batean dugu, halabeharrez egokitu behar baita eskaeraren bilakaerara eta lege esparru berriak ezarritako baldintza berrietara.

Digitalizazioa aintzat hartu beharreko beste eraldaketa faktore bat da. Ikasgela guztiak “informatika ikasgela” bihurtzeko joera geroz gero sortzen du, besteak beste.

Gobernantza instituzionala aberastu egingo da, bermearen barne sistemaren ezarpena akreditatzearekin batera. Era berean, hasitako eta etendako Plan Estrategikoa amaitzeko baldintzak ematen dira, joan den maiatzean onartutako UPV/EHUko Plan Estrategikoaren eta berehalako Unibertsitate Plan berriaren babespean.

Hura egiten denbora luzez egon ondoren, ahalmen handiko webgune berria estreinatu dugu, fakultatearen kanpo eta barne komunikazio eta bisualizazioarako plataforma izateko bokazio argiarekin.

2022. urteak berriki onartutako Unibertsitateen Legea ere utzi digu, LOSUa. Lege esparru berri horrek gure unibertsitate eta fakultatearen antolakuntza eraketaren alderdi sentikorrek eraldatzen ditu. Eraldaketa horiek eraginkortasunez eta erabakimenez erantzutea eskatuko digute, inondik ere.

Aldaketa garaiak dira, edo are garaien aldaketa. Tentsio intelektualean eduki nahi dugu beti gure osagai aspirazionala. Sarriko ez da geldirik egongo aldaketa horien aurrean. Horiek lideratzeko prozesuen parte aktiboa nahi du izan, jakintza aurreratuaren talaiatik.



# 2020-2021

## Promozioren Graduazioa



Martxoaren 3an 20/21eko promozioaren graduazio ekitaldia izan genuen Bizkaia Aretoan. Artean ere Covid-19ko protokoloak indarrean zeuden arren (maskara, seniderik ez, irakasle gutxi), nolabaiteko normaltasunez egin ahal izan genuen. Ekitaldia Internetez jarraitu ahal izan zen.

Promozioren amabitxia Ingeteameko presidente Teresa Madariaga izan zen.

Teresa Madariaga, Ingeteameko presidentea eta promozioaren amabitxia; Eva Ferreira, errektorea; Jon Barrutia, dekanoa; Ana Albira, ikasleen ordezkaria; Iñaki Ruiz, Ekonomisten Euskal Elkargoko presidentea; Miren Artaraz, Unibertsitate Politika eta Koordinazio Zuzendaritzako zuzendaria.





## Erasmus+ EFFORT proiektua, irakaskuntzaren eranginkortasuna eta kalitatea hobetzen

Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Ekonomia eta Enpresa Fakultateko irakasleek, **Unai Tamayo** eta **Julen Castillo**, **EFFORT Erasmus+ proiektuaren** kide dira, zeinak goi-mailako hezkuntzako erakundeei iraunkortasunarekin, etikarekin eta erantzukizun sozial korporatiboarekin lotutako irakaskuntzaren eraginkortasuna eta kalitatea hobetzen laguntzen dieten tresnak eta jarraibideak garatzen dituen.

Proiektu honen esparruan **EffSET** (Self Evaluation Tool) izeneko **tresna** garatu da, goi-mailako hezkuntza-erakundeak beren gizarte-erantzukizun korporatiboaren maila sailkatu eta aztertzen lagunduz. EffSET proiektuaren [web](#) orrialdean eskuragarri dago, erabilera gida batekin batera. Informazio gehiago jaso nahi izatekotan, jar zaitez harre-

manetan [Fabio Pizzutilo](#) edo [Elisabetta Veneziarekin](#).

Proiektuan diharduten Alemaniako (Berlin School of Economics eta CBS International Business School), Italiako (Università Degli Studi Di Bari Aldo Moro), Hungariako (Budapesti Gazdasági Egyetem) eta Finlandiako (Lappeenranta University of Technology) unibertsitateetako lankideak Bilbora etorri ziren ekainean gure Fakultatea ezagutzeko asmoz. Urrian beste behin elkartu ginen, kasu honetan Budapest Business School (Budapest) unibertsitatean, non [Escape Room No Plan\(et\) B](#) frogatzeko aukera izan genuen, zeina ikaslegoa iraunkortasunaren garrantziaz kontzientziatzen laguntzeko diseinatuta dagoen, ikasleek prozesu horri loturiko gaitasunak garatzen dituzten bitartean.

Proiektua bera eta lorturiko aurrerapausoak, urriaren bukaeran Kudeaketa Aurreratuaren Europar Astearen 28.ean edizioaren esparruan garatutako **“IKD i<sup>3</sup> JENDARTEA 2022: IKD i<sup>3</sup> Estrategiaren garapena erronka berrien aurrean”** kongresuan plazaratu ziren “Esperientziak: Erronkekin lanean beste hezkuntza estrategia batzuen baitan EFFORT Erasmus+ Multiplier Event” izenburua duen hitzaldia eta loturiko poster bat aurkeztu zirelarik.

**Proiektuaren newsletterrean alta eman nahi baduzu**, hemen egin dezakezu:

<https://mailchi.mp/59f1861a8817/effort>

*Julen Castillo*

## Iraunkortasunaren aldeko Gradu Amaierako eta Master Amaierako lanen jardunaldia

**Ana Lasa Somocurciok**, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako (EAZ) eta Zuzenbideko Gradu bikoitzeko ikasleak, EAZ Gradu Amaierako lana aurkeztu zuen “Genero berdintasuna enpresan: ibex35eko bost enpresen administrazio kontseiluen osakeraren eta dibulgatutako informazioaren analisia” izenburupean UPV/EHUko Iraunkortasun Zuzendaritzak antolatutako **iraunkortasunaren aldeko GRAL eta Master Amaierako Lanen jardunaldian**.

**Javier Corral** eta **Ainhoa Saitua** irakasleek zuzendutako lan honek **5. GJHa** (Genero Berdintasuna) eta **8. GJHa** (Lan duina eta kalitatezkoa) jorratzen ditu [Campus Bizia Lab](#) (CBL) programa barruan, Noemí Peñak koordinatzen duen [Desarrollo de Competencias Sociales en la toma de Decisiones Sostenibles: un simulador para Economía y de Educación Social](#) proiektuarekin lotuta.

*Ainhoa Saitua*





# Ekonomista digitalaren gaitasunak



Gure helburua da emaitzak gida moduan erabili ahal izatea enpresa eta prestakuntza zentroetan.



**Julián Pandok** eta **Jose Domingo García** osatzen duten taldea (**María Jesús Luengo** eta **Iñaki Periañez** dira ikertzaile nagusiak) US21/04 azterlana egiten ari da, UPV/EHUko Unibertsitatea-Enpresa-Gizartea proiektuaren deialdiaren barruan. **Las competencias del economista digital en el contexto de la Agenda Euskadi Basque Country 2030** du izena azterlanak, eta 2021-2023 urteetan ariko dira horretan.

Goi mailako tituludunen enplegatzaileek behar dituzten eta Ekonomia eta Enpresako titulazio berrietan eskuratu beharko lirakeen **gaitasunak hautematea** da azterlanaren helburua. Gaitasun horiek, gainera, zeharka barne hartzen dituzte **2030 Agendaren helburuak**.

Gure proposamenak honako hau du xede: gure tituludunen lanpostuek eskatzen dituzten gaitasunak/trebetasunak enpresaren ikuspuntutik identifikatzea. Digitalizazioaren eta jasangarritasunaren garaiari gizarateak benetan eskatzen duen ikasketa amaierako profila zehaztu nahi dugu.

Azterlanak genero ikuspegia du baita ere, eskatutako gaitasunetan eragiten duen egiaztatze, 2030 Agendaren premisak kontuan hartuta betiere.

Azterlana bi fasetan banatzen da:

- **Kualitatiboa:** elkarrizketa sakonak, World Café erakoak, literaturaren berrikuspenarekin batera galdetegia eratzeko aukera ematen baitute.
- **Kuantitatiboa:** emaitzen bilketa eta azterketa; azken txostena dagozkion ondorioekin.

Fase kualitatibotik atariko ondorio batzuk atera ditzakegu: **komunikatzeko gaitasunari** ematen zaion garrantzia, **gaitasun analitikoa**, **hizkuntzak eta talde lana**, nola aurrez aurrekoa hala urrutikoa.

Horrez gain, **datuak aztertze gaitasuna** (estatistika, programazioa, Excel, Makroak...), **zibersegurtasuna**, **urrutitik lan egiteko aplikazioen ezagutza** eta **aniztasuna eta inklusioa**.

Gaur egun, landa lanaren fasean dago azterlana; hau da, telefono bidezko inkestak egiten ari dira.

Gure helburua da emaitzak gida moduan erabili ahal izatea enpresa eta prestakuntza zentroetan.

*Iñaki Periañez*



## Bestinver foroa

**Ana Blanco Mendialdua** Finantza Ekonomia II saileko irakasleak **Bestinver foroan** parte hartu zuen, EL CORREOKo ekainaren 28an antolatuta. Mezu katastrofistak alde batera utzi nahi izan zituzten, gazteei irekitzen zaizkien aukeretan arreta jartzeko, aurrezkiaren ikuspuntutik beren kartak ondo jokatzeko badituzte. **Massimo Cermelli** Deusto Business School-eko (DBS) Ekonomiako irakasle titullarrak, **Maria Barturen** Barrilero y Asociados bulegoko bazkideak, **Miguel Dolz** Bestinver-eko kudeatzaile eta ana-

listak, eta **Ana Blanco** UPV/EHUko Finantza Ekonomia II saileko irakasle titullarrak beren ikuspuntuak azaldu zituzten **Marta Madruga EL CORREOKo kazetariak moderatu zuen solasaldian**.

*Ana Blanco*

## Berlingo HWR Unibertsitatera bisita

EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko laugarren mailako ikasleek parte hartu dute, Berlingo HWR unibertsitateak gonbidatuta, 2022ko azaroan ospatu den **“Iraunkortasunari buruzko Nazioarteko Astean”**.



*“Mila esker esperientzia honengatik! Oso positiboki baloratzen dut, asko aberastu nau pertsonalki, eta ingurumenari eta iraunkortasunari arreta handiagoz begiratzen lagundu dit. Nire taldean, hainbat jarduera egin ditugu jendea garraio publikoa gehiago erabiltzera bultzatzeko. Horretarako, aplikazio bat sortu dugu, sortutako CO2 isuriak ematen zizkiguna, auto partikularren erabileraren aldean konparazio bat eginez”.*

**Aintziara Larrabe Begoña**

(EAZko 4. maila)

*“International Sustainability Week delakoa oso formatiboa izan da. Iraunkortasunaren alderdi legalak, finantzarioak, teknikoak eta sozialak jorratu ditugu, baina, batez ere, urrats bat harago egin dugu. Izan ere aste osoa etengabeko Brainstorming bat izan da. Ekimenak ekonomia zirkularreko ideiak garatzeko, klima-aldaketa geldiaraziko duten konponbideak bilatzeko, egiten ari garen bizimodua zalantzan jartzeko eta hazkunde ekonomikoa, gizarte-ongizatea eta ingurumena lerrotatuta egongo diren mundu alternatibo bat planteatzeko aukera eman digularik”.*

**María Gómez Rodríguez**

(EAZ + Zuzenbidea Gradu bikoitzeko 4. maila)

*Unai Tamayo*



## Laneko gosariak

Abenduaren 2an eta 9an fakultateak gosari batzuk antolatu zituen, **Ekonomisten Euskal Elkargoaren laguntzarekin**, ikasleek aukera izan zezaten enpresetako ordezkariekin biltzeko (**Iberdrola, Deloitte eta Laboral Kutxakoekin**) biltzeko. Horrela, gure ikasleek parte hartu ahal izan zuten alde biezat aberasgarria izan zen solasaldi batean, eta parada izan zuten intereseko dinamika profesionalak ezagutzeko eta haietan murgiltzeko.

## Kantu errezitaldi laburra

Ainhoa Saitua Iribar kontabilitate irakasleak (Finantza Ekonomia I saila) kantu klasi-koko zenbait saio egin zituen, eta unibertsitateko komunitate osoa egon zen gonbidatua. Adibidez, 2022/04/28ko saioa Bilbo/Sarrikoko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko gradu aretoan izan zen, honako programa honekin:

**“Caro mio ben”** (Giordani, 1785)

**“Ach Ich Fühls”**, “Flauta magikoa” operakoa (Mozart, 1791)

**“Seligkeit”** (Schubert, 1816)

**“Tu che di gel”**, “Turandot” operakoa (Puccini, 1926)

**“In other words”** (Howard, 1954)

Fakultateko zuzendaritza taldeak uste du jarduera hori lotuta dagoela hezkuntza kalitatearen sustapena hedatzeko kulturarekin. Hori dela-eta, ikastegiko langile guztiei (administrazio eta zerbitzuetako langileak, irakasle-ikertzaileak eta ikasleak) gonbit egiten zaie horrelako jardueretan parte hartzeko, beren

gaitasun eta trebetasun ez-akademikoak erakutsiz. Interesatuta bazaude, jarri harremanetan Dekanotzarekin.

*Unai Tamayo*



## Sarriko, Martxan! Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza

Lehenengo edizioak izandako harrera onaren ondoren, joan den maiatzean **EHGIn-EcoEss** ikasleen **II. Jardunaldiak** ospatu ziren gure Ekonomia eta Enpresa Fakultatearen Areto Nagusian (Egoitza). Oraingo honetan, "Historia Ekonomikoa" eta "Ekonomiarako Sarrera II: Makroekonomiaren Oinarriak"

irakasgaietako **lehen mailako ikasleek** izan zuten protagonismoa, baita ikasle egresatuaren **Gratu Amaierako Lanetako Iraunkortasunaren arloko esperientziak** ere.

*Patricia Peinado*

## Erronka on! Mintegi-zikloa



Irakasle -ikertzaileen eta AZPkoen artean 70 pertsona baino gehiago biltzen dituen **ERRONKA ON!** I3KD (Ikaskuntza +Ikerketa +Jasangarritasuna) proiektuaren esparruan, lau mintegi egin dira 2022-23ko lehen lauhilekoko hainbat irakasgaitan **Garapen Iraunkorreko Helburuei (GJH) buruz ikasleekin egindako jarduerak** aurkeztuz.

**LEHENENGO MINTEGIA** 2022ko urriaren 4an izan zen. Bertan, **Ricardo Bustillok**, "Ekonomiarako Sarrera I: Mikroekonomiaren Printzipioak" irakasgaiaren testuinguruan, "GIH Erronkaren Hautaketa. Genero-berdintasuna lan-merkatuan" jarduera aurkeztu zuen. Bestalde, **Covadonga Aldámiz-Echevarriak** "Enpresaren Ekonomia: Sarrera" irakasgaiaren lantzen den GIHen integrazioa jarduera aurkeztu zuen.

Azaroaren 4an egin zen **BIGARREN MINTEGIAN**, **Iñaki Etxanizek** eta **Mikel Erkorekak** "Espainia garaikidearen historia ekonomikoa" irakasgaiaren barruan "Hazkunde ekonomikoa eta eraldaketa soziala epe luzerako ikuspegi" jarduera aurkeztu zuten. Bestalde, "Mikroekonomia" irakasgaietako, **María José Gutiérrez** eta **Amagoia Sagastak** bi jarduera azaldu zituzten: "Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza: GIH, Monopolioa eta emisio kutsatzaileak", eta "Ikerkuntzan Oinarritutako Ikaskuntza: GIH industria oligopolistikoetan".

Azaroaren 25ean egindako **HIRUGARREN MINTEGIAN** hizlariak izan ziren, **Iñaki Aguirre** "GIHen integrazioa Merkatu-boterea eta estrategia irakasgaiaren: Presoaren dilemaren aplikazioak" aurkeztekin, eta **Marta Regúlez**,

"GIHak Ekonometria: klimaren aldeko ekintza" aurkeztekin.

**LAUGARREN MINTEGIA** abenduaren 20an izan zen. Parte hartu zuten **Jon Alkorta** "GIHek euskara akademiko eta profesional idatziaren irakasgaiaren duten integrazioaren analisia" azalduz, **Alaitz Artabek** "Federalismo fiskala munduan: mintegiaren erronka" aurkeztuz eta **Elena Catalanek**, "La paradoja de Bezos. Desberdintasunaren faktoreak ikuspegi historikoan" hitzaldiarekin.

*Ainhoa Saitua*



# Aitor Ciarreta

## SPERTUSen,

### Trantsizio Energetikoari eta Industria

### Lehiakortasunari buruzko Mintegi Iraunkorra



**Aitor Ciarreta** UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Analisi Ekonomikoko saileko irakasle eta BIRTE ikertaldeko ikertzaile nagusiak (IN) SPERTUS Trantsizio Energetikoari eta Industria Lehiakortasunari buruzko Mintegi Iraunkorraren 2. bileran parte hartu zuen.

Energiaren sektorean prestigioa duten zientzialari eta teknologoek osatzen dute SPERTUS, eta **gaur egungo munduaren erronka handienetako baten gaineko ezagutza estrategikoko huba da, trantsizio energetikoaren gainekoa**, alegia. Unibertsitateko eta ikerketa eta teknologia zentroetako gaitasunak eta industria munduaren benetako beharrak hautemateko topagune gisa jarduten du.

Energia ekoizteko eta biltegitratzeko teknologien eta azpiegituren arloan ezagutza garrantzitsua ematea du helburu, hala, enpresa ehunak alor horretan eta, bereziki, hidrogeno berdearen eta mugikortasunaren sektoreko ibilgailu elektrikoaren arloan dituen beharrak asetzeko. Horiek guztiak funtsezko teknologiak dira ekonomia berde berrian, eta trantsizio energetikoaren prozesuak kalte egingo dien sektoreen biziraupena eta eguneratzea erraztuko dute. Era be-

rean, trantsizio prozesu honetako beste alderdi garrantzitsu batzuk ere aztertzen dira, hala nola ekonomikoak eta juridiko-administratiboak.

**Mintegiaren antolatzaileak UPV/EHUko Kimika Organikoa eta Ez-organikoa Saila eta Energiaren Euskal Erakundea (EEE) izan ziren.** 2022ko maiatzaren 9an izan zen Bizkaia Aretan, eta lau saiotan gauzatu zen. Saio horietan, trantsizio energetikoaren alderdi orokorrak ez ezik, horrek garapen teknologikoan, industria lehiakortasunaren jarraipenean eta faktore ez-teknologikoetan (hala nola ekonomikoak, juridikoak eta sozialak) dituen ondorioak ere aztertu ziren. Ciarreta irakaslearen hitzaldia, hain zuzen ere, trantsizio energetikoaren zeharkako alderdiak (ekonomia, segurtasuna eta gizarte, lege eta administrazio arloak) aztertze-ko saioaren barruan sartu zen.

Saio horretan, Ciarreta irakasleaz gain, **BC3ko Mikel Gonzalez-Eguinok, San Pablo CEU Unibertsitateko Marta Villarrek eta Ikerketa Estrategikoen Institutuko José Pardo de Santayanak** ere parte hartu zuten.

*María José Gutiérrez*



## Sarrrikoko El Capital mintegia

Ikasturte honetan, Ekonomia Aplikatu sailak eta **Sarrrikoko El Capital mintegiak** asteroko saioak antolatu dituzte **Kapitala obraren VI. kapituluak (argitaratu gabea)** eta [Grundrisse](#). bildumako lehen liburukia irakurtzeko. Aurrez aurreko eta onlineko saioak eman dira, eta hogeitabat lagunek hartu dute parte. Parte hartzaileek Espainiako beste probintzia batzuetatik ikusi zituzten saioak, baita Mexikotik edo Guatemalatik ere. Datoren ikasturterako, **Grundrisse** bildumako materialak irakurtzen bukatzea aurreikusten da.

Aldi berean, **logika dialektikoari buruzko mintegi bat** antolatu da hamabost egunean behin. Mintegiari amaiera emateko, **Manuel Monleón** irakasleak, Valentziako Unibertsitate Politeknikoko (UPV) Termodinamikako katedradunak, La dialéctica en Marx y la ciencia moderna hitzaldia eman zuen. Bi zatitan egin zen: lehen maiatzaren 23an izan zen, Elkano eraikineko areto nagusian; bigarrena, ekainaren 15ean, Sarrrikon.

Ikasturte honetako jarduerak osatzeko, Hegelen dialektikaren hastapenei buruzko mintegi bat egingo da uztailaren 5ean eta 6an, **Joaquín Miras Albarrán**en (Espai Marx) eta **Lucía García González**en (Espai Marx eta Bostongo Unibertsitatea) eskutik.

“Seminario El Capital Sarrriko” izeneko [YouTubeko kanalean](#) eskuragarri daude ikastaro eta jardunaldietako material guztiak.

*Joaquín Arriola*

**Beatriz Plaza**(Ekonomia Integrazioko doktoregoa)**Amaia Maseda y Jon Charterina**(Enpresa Zuzendaritza, Ezagutza eta Berrikuntzako doktoregoa)**M<sup>a</sup> Paz Moral**("Ekonomia: Ekonomia Analisisirako Tresnak" doktoregoa)**Jesús Vázquez**("Finantza eta Ekonomia Kuantitatiboak / Quantitative Finance and Economics" doktoregoa)

# Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Doktorego Jardunaldiak

Urriaren 27an eta 28an **Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Doktorego Jardunaldien zortzigarren edizioa** egin zen. Ekitaldi hori dagoeneko finkatuta dago gure Fakultatean. Jardunaldiak Fakultatean ematen diren **lau Doktorego Programek** antolatu dituzte, elkarlanean: Ekonomia: Ekonomia Analisisirako Tresnak, Ekonomia Integrazioa, Finantza eta Ekonomia Kuantitatiboak / Quantitative Finance and Economics, eta Enpresa Zuzendaritza, Ezagutza eta Berrikuntzak. Ekonomia eta Enpresa Fakultatearen eta UPV/EHUko Doktorego Eskolaren babesa dute, eta, doktoregoko ikasketei dagokienez, Fakultateak antolatzen duen urteko ekitaldirik esanguratsuena dira. Gainera, doktoregoko ikasleen, UPV/EHUko irakasleen eta gonbidatuen arteko komunikazioa eta ezagutza trukea bultzatzen dute.

Urtero legez, Doktorego Programaren antolatzaileek nazioarteko ospe akademikoa duten irakasleak gonbidatzen dituzte eta beren ikasleekin koordinatzen dituzte ikerketa planen eta tesi aurerratuaren aurkezpena. Ekitaldiraren bi

egunetan zortzi saio eman ziren, eta gu gonbidatutako irakasleek eginiko aurkezpenetara joan ginen. Haietan solas egiteko aukera egon zen, bai doktorego ikasketetan hasi berriak diren ikasleentzat, bai hilabete gutxiren buruan doktore titulua lortuko duten doktoregaiantzat. Jardunaldien zortzigarren edizio honetan, honako **hizlari eta iruzkingile** hauek joan ziren: **Pedro Rey Biel**, Ekonomiako irakasle titularra (ESADE, Ramón Llull Unibertsitatea); **M<sup>a</sup> Concepción López Fernández**, Enpresen Antolakuntzako katedraduna (Kantabriako Unibertsitatea), eta **José Villaverde Castro**, Ekonomiako katedraduna (Kantabriako Unibertsitatea).

Doktoregaiak **hamahiru tesi aurerratu** eta **zazpi ikerketa plan** aurkeztu zituzten. 2022an, behin COVID-19aren birusak eragindako 2021eko konfinamendu aldia behin betiko atzean utzita, jardunaldien batzorde antolatzaileak lehenetasuna eman zion berriro ere Fakultateko gradu aretoan eta Hallelan saio presentzialak egiteari. Dena den, urriaren 27ko (osteguna) arratsaldean, saio

berezi bat antolatu zen: presentziala eta birtuala. Halaber, bertaratu ezin izan ziren nazioarteko ikasleei bideokonferentzia bidez erantzun zitzairen.

Beste urte batez, Jardunaldiak antolatzen ditugun lau Doktorego Programak pozik egon gaitzke eskainitako espezialitatearen kalitateagatik, izan ere, jardunaldiak amaitu ostean egiten den inkestak adierazten du bertaraturako ikasleak gustura egon zirela. Zehazki, 5etik 4,8ko puntuazioa lortu genuen batez bestean. Emaitza horiek, gonbidatutako irakasleen eta bertaraturako publiko orokorraren balorazio onekin batera, etorkizuneko edizioen formatua egokitzen eta hobetzen jarraitzea animatzen gaituzte.

*Jon Charterina*

## 2022. Irakasleen Prestakuntzako Jardunaldia

# Ikasleen Arreta Hobetzeko Irakaskuntza Prestakuntza: Psikologia eta Ezgaitasunak. Pandemia



Uztailaren 11n **2022. Irakasleen Prestakuntzako Jardunaldia** ospatu genuen Ekonomia eta Enpresa Fakultatean (Egoitza), gai honekin: "Ikasleen Arreta Hobetzeko Irakaskuntza Prestakuntza: Psikologia eta Ezgaitasunak. Pandemia."


Gure Fakultateko irakasleak **Arantza Martínez**en, EHUko Ikasleentzako, Ikasleen zuzendaria Argibide Zerbitzuan (IAZ); **Patricia Insúaren**, UPV/EHUko Arreta Psikologikorako Zerbitzuaren zuzendaria; eta, **Nahia**

**Idoiagaren** UPV/EHU-ko Gradu Amaierako Lanen eta Graduak eta Graduondokoak Koordinatzeko dekanordea Bilboko Hezkuntza Fakultatean, ekarpenak jarraitzeko aukera izan zuen.

Jardunaldia bertaraturata zein online jarraitu ahal izan zen, eta gure Fakultateko 57 irakaslek hartu zuten parte

*Patricia Peinado*





**Ekitaldi honetara hirurehun aditu baino gehiago hurbildu ziren kongresuko hogeita hamar mahai tematikoetan**

## **AEHE-Historia Ekonomikoaren Espainiako Elkartearen XIII. Nazioarteko Kongresua burutu da: Zientzia, teknologia, berrikuntza eta garapen ekonomikoa perspektiba historikoan**

Gure Fakultateko **Politika Publikoen eta Historia Ekonomikoaren sailak** AEHE - **Historia Ekonomikoaren Espainiako Elkartearen XIII. Nazioarteko Kongresua** antolatu zuen abuztuaren 30etik irailaren 2ra bitartean, Bilboko UPV/EHUko Bizkaia Aretoan. Kongresuak **Nortegas, Iberdrola, Euskadiko Parke Teknologikoak eta Eusko Jaurlaritzaren babes** jaso zuen, baita hainbat erakunde eta enpresaren laguntza ere.

Ekitaldi honetara hirurehun aditu baino gehiago hurbildu ziren kongresuko hogeita hamar mahai tematikoetan eta Doktorego Eskolan parte hartzera. Osoko bilkurak gaur egun garrantzi handia duten bi gai buruzkoak izan ziren. Lehenengoan, **'Imitatzailenetatik berritzailetara: politika zientifiko-teknologikoak eta industrializazioa Espainian XX. Mendean'** izenekoan, zientziak, teknologiak eta berrikuntzak Espainiako garapen ekonomikoan duten zeregina aztertu zen. **Dan Breznitz**, (Berrikuntza Ikasketetako katedraduna Munk School of Global Affairs and Public Policy-n eta Torontoko Unibertsitateko Zientzia Politikokoetako sailean), **'Innovation in Real Places? What have 50 years of**

**Globalization Taught us about local Innovation-Based Growth'** izenburuko hitzaldiarekin aberastu zuen eztabaida hau. Bigarren osoko bilkuran, "Energía, cambio tecnológico e impacto ambiental: una historia económica", energiak herrialdeen hazkunde eta garapen ekonomikoan faktore erabakigarri gisa duen zeregina jorratu zen.

Kongresuak programa sozial zabala izan zuen. Aldi berean, zenbait enpresetara (Innobasque, Ideko, Ormazabal-Velatia, Tecnalia, Aguirre y Aranzabal (AVA)) eta erakundeetara (Armagentzaren Museoa (Eibar), La Encartada fabrika-museoa, Asociación Armera, Industri Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkarte eta Bilboko Itsas Museoa) bisitak programatu ziren, Bilboko Udalarekin batera, eta ongietorria egin zitzaizen Arabiar Aretoan. Gala afaria Euskaldunan izan zen, eta bertan **AEHEren 2020-2022 urteko sarien banaketa egin zen**. Bertan, **Elena Catalan eta Ernesto López Losa** Fakultateko irakasleak saritu zituzten.

Igor Goñi



## Ekonomia Jasangarriko Komunitatea

2022ko martxoaren 29an, Ainhoa Saitua irakasleak **hitzaldi bat** eman zuen **Ekonomisten Euskal Elkargoan**, erakunde profesional horretako Ekonomia Jasangarriaren Komunitatearen ordezkari gisa, "De la RSC a la Sostenibilidad. Compromiso, regulación y formación para una mejor gestión y divulgación de información en las empresas" izenburupean.

Ekitaldia **Economistas sin Fronteras** erakundeak antolatu zuen, **José Ángel Moreno Izquierdo**, [Poder corporativo, irresponsabilidad empresarial y democracia económica. Variaciones sobre un mismo tema](#) liburuaren aurkezpena zela eta

Ainhoa Saitua

## 2022ko KORRIKA



**Unai Tamayo** eta **Ainhoa Saitua** irakasleek **2022ko Korrikan** parte hartu zuten Bilboko Miribilla auzoan, lekukoa **Ekonomisten Euskal Elkargoak** erositako kilometroan eramanez.

Ainhoa Saitua



## Kontabilitate eta Auditoretza Hiztegi Berria

Ekonomia eta Enpresa Fakultatea Kultura eta Hizkuntza Aniztasunarekin konprometuta dago, [EHUagenda 2030](#)en ODS 18. Konpromiso horren erakusgarri, **Finantza Ekonomia I Saileko irakasleek** (Ainhoa Saitua, Izaskun Ipiñazar, Miren Edurne Aldazabal, Itziar Azkue, Rober Ugalde, Jorge Tejedor) eta Euskara Teknikoko irakasleak (Jon Alkorta) aktiboki parte hartu dute **Kontabilitate eta Auditoretza Hiztegia** egiten.

Proiektu hori UZEI (**Terminologia eta Lexikografiako Euskal Zentroa**)-k gidatu du, eta 2022ko ekainaren 21ean aurkeztu zen, **Ekonomisten Euskal Elkargoan** egindako ekitaldi batean. Ekitaldi horretan, Ainhoa Saitua irakasleak parte hartu zuen, Ekonomisten Elkargoko Euskara Komunitatearen ordezkari gisa, eta proiektu handia izan zuen hainbat komunikabidetan, [idatzizkotan](#) eta [ikus-entzunezkoetan](#).

Ainhoa Saitua

## Bake Ekonomia, Giza Eskubideak eta Euskal Enpresa V. laborategia

2022ko maiatzaren 23an **Bake Ekonomia, Giza Eskubideak eta Euskal Enpresa V. Laborategia** ospatu zen Bizkaia Aretoan, besteak beste **UPV/EHUk** eta **Gernika Gogoratuz**-ek antolatuta. **Ainhoa Saitua**, Ekonomia eta Enpresa Fakultateko irakasleak, **Ekonomisten Euskal Elkargoko** Ekonomia Jasangarriaren ordezkari gisa parte hartu zuen, "Giza Eskubideei eta Euskal Enpresei buruzko" eztabaidako "0 lerroan".

Bertan, Garapen Iraunkorreko Helburuen (GIH) inguruan eztabaidatu zen, Ekoizpen eta Kontsumo Arduratsuari (12. GIH), Erakunde Sendoei (16. GIH) eta Helburuak lortzeko Aliantzei (17. GIH) buruz, hain zuzen ere.

Ainhoa Saitua



# Gure fakultateko 80 ikaslek baino gehiagok IDOM bisitatu dute

Gaur egun, enpresaren fakturazioaren % 70-75 inguru nazioartekoa da, eta zenbait sektoretan, energiaren adibidez, fakturazioaren % 95 da nazioartekoa.

Apirilaren 1ean, 85 lagun atera ziren Fakultatetik, IDOMeko **hitzaldi** batera joateko. Hitzalaria **Tomás González** izan zen, aholkularitzako, ingeniariatzako eta arkitekturako zerbitzu profesionalen enpresako bazkide eta nazioarteko hedapeneko zuzendaria. Ikasleekin batera, **Nazioarteko Marketina, Marketing Industriala eta Barne Marketina eta Zuzendaritza Trebetasunak** irakasgaietako irakasleak joan ziren: Marisol Aguirre, Covadonga Aldamiz-echevarria, Amaia Bañales, Xabier Olabarrieta eta Maite Ruiz.

Gaur egun, 125 herrialdetan baino gehiagotan du presentzia **IDOMek**, eta 4.300 langiletik gora ditu. Oraindik ere hazten ari da, eta, hain zuzen ere, Tomás Gonzálezek curriculum vitae bidaltzera bultzatu zituen ikasleak, argi baitute graduatu berriak nahi dituztela enpresan profesionalki prestatu eta gara daitezzen; ingeles maila ona eskatzen dute (C1 mailaren inguruan), eta, hizkuntza gehiago jakinez gero, hobe.

Merkatu anglosaxoian sartzeko, enpresak erosi zituzten, bertako presentzia izatea ezinbestekoa baitzen. AEBn AEC Engineering erosi zuten, eta Erresuma Batuan, MERE BROOK LIMITED. Gaur egun, enpresaren fakturazioaren % 70-75 inguru nazioartekoa da, eta zenbait sektoretan, energiaren adibidez, fakturazioaren % 95 da nazioartekoa.

Hitzaldiaren ondoren, taldeko argazkia egin zen, eta, ondoren, enpresaren **egoitza ikusgarria bisitatu zuten** 20 lagunek. Azpimarratu behar da bertako arkitektura eta ingeniari taldeek diseinatu eta proiektatu dutela eraikina. Garai batean salgai handietarako biltegi frankoa izan zen, eta gaur egun bere arkitektura jasangarri moderno eta abangoardistagatik nabarmentzen da.

Itsasadarrera begira dagoen terrazaz, kafetegiaz eta aisialdirako gunez gain, txundigarria zen dozenaka langile biltzen zituzten eremuetako isiltasuna



Azaldu zigun zer egiten zuten, nola zabaldu ziren nazioartera, nola lortzen zituzten bezero eta kontratu berriak eta nola eragiten zuen kulturak herrialde desberdinetako pertsonekin zituzten harremanetan.

**IDOMek** modu oportunistan hautatu izan ditu nazioarteko merkatuak. "Lan bat genuelako sartu ginen han". Horrela, **Rafael Escoláren** eskutik Bilbon jaiotako enpresa gaur egun dena bihurtu arte hazi da. Latinoamerikara hedatzen hasi ziren, hasieran, enpresako jende gutxi zekielako atzerriko hizkuntzaren bat; eta gero, EBra, funtsak zeudelako, Ekialdeko Europara, Hego-ekialdeko Asiara eta Afrikara.

(horietako asko lantaldean ari ziren); zarata jaso eta minimizatzeko trampa arkitektonikoak erabili dituzte horretarako.

Hemendik, eskerrak eman nahi dizkiogu IDOMi, eta, bereziki, Tomás González, bere enpresako atea gure Fakultatera irekitzean erakutsi duen eskuzabaltasunagatik eta bertaratu-takoekin partekatzean haren ezagutza eta esperientzia.

*Covadonga Aldámiz-Echevarria*

# Jesús M<sup>a</sup> Valdalisok NORTEGAS (1845-2021) liburua aurkezten du

*Historia de la  
Industria del gas en  
el norte de España*  
Jesús M<sup>a</sup> Valdalisok  
jaunak zuzenduta



2022ko abenduaren 15ean, UPV/EHUko Historia eta Erakunde Ekonomikoetako katedradun **Jesús M<sup>a</sup> Valdalisok** jaunak zuzendu duen **NORTEGAS (1845-2021)**. [Historia de la Industria del gas en el norte de España](#) liburua **aurkeztu zen** Bilboko **Bidebarrietako Bibliotekako** ekitaldi aretoan.

Liburuak Asturias, Kantabria eta Euskal Autonomia Erkidegoko eskualde kantauriarretako gas-sektorearen historia kontatzen du, hasieratik, XIX. mendearen erdialdean, - argi publiko eta pribatuetara bideratutako harrikatzen gasaren fabrikazioa eta banaketa - gaur egunera arte - etxeen, establezimenduen eta industriaren kontsumoari eta elektrizitate ekoizpenari eskainitako gas naturalaren banaketa - .

Nortegasen **aurreko enpresak**, gaur egun Espainian gas naturala banatzen duen bigarren enpresa, dira liburu honetako protagonista nagusiak: XIX. mendearen erdialdean kontsumitzaileentzat, administrazioarentzat eta, oro har, gizartearentzat guztiz berria zen energia

eta zerbitzua instalatzeko eta zabaltzeko erronkei aurre egin behar izan zuten konpainia pribatu eta publikoak (udaletakoak), XIX. mendearen amaieratik elektrizitatearen lehia, hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko hamarkadetan harrikatzen petrolio-naftetarako trantsiziotik eratorritako teknologia-aldaketa hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko hamarkadetan, edo XX. mendeko laurogeiko hamarkadatik aurrera hiri-gasaren ordez gas naturala erabiltzeak ekarri zuten negozio-ereduaren aldaketa.

Ekitaldian izan ziren: **Iñaki Alzaga**, Nortegasko presidentea; **Arantxa Tapia**, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia-aren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua; **Jacinto Lobo**, Grupo Empresarial ENCE enpresako Energiaren zuzendari nagusia eta EVEko zuzendari nagusi ohia; **Guillermo González**, Bahía de Bizkaia Gaseko zuzendari nagusi ohia; **Iñigo Ansola**, EVEko zuzendari nagusia; **Nora Castañeda**, Senerreko Teknologia Berrien Negoziozko zuzendaria; eta **Javier Contreras**, Nortegaseko kontseilari delegatua.

*Elena Catalán*



# Master Amaierako Lanaren eta Doktorego Tesiaren Kapituluaren sariak



## Peio Alcorta eta Evelyn Chanatásig saritu dituzte energia-ekonomiaren arloan egindako lanengatik

Energiaren arloko Finantza eta Ekonomia Kuantitatiboko doktorego programako bi ikaslek, Análisi Ekonomikoko saileko (ANEKO) Peio Alcortak eta Metodo Kuantitatiboan saileko Evelyn Chanatásigek, saria lortu dute [Energia Ekonomiaren Espainiako Elkartearen \(AEEE\) XVII. Kongresuan, beren ikerlanengatik.](#)

**Evelynek doktorego tesiko kapitulu onenaren saria jaso du** lan honengatik: A volatility spillover analysis with realized semi(co)variances in Australian electricity markets (Aitor Ciarretak eta Ainhoa Zarragak zuzendu dute); **Peiok, aldiz, master amaierako lan onenaren saria jaso du** lan honengatik: Who bears the risk? Analyzing the strategic interaction between regulators and investors when setting incentives for renewable electricity (Maria Paz Espinosak eta Cristina Pizarro-Irizarrek zuzendu dute). Bi lanak beren doktorego tesien parte dira.

Energia ekonomiaren arloko gradu amaierako lan onenaren,

master amaierako lan onenaren eta doktorego tesiko kapitulu onenaren sarien deialdiak helburu du energiaren ekonomiarekin lotutako lanen emaitzak zabaltzea, Nazioarteko Finantzen Katedraren, Banco Santanderren eta AEEEren finantzaketarekin. Saritutako lanak hitzaldi gonbidatu gisa aurkeztu ziren AEEEren urteko kongresuan. Maiatzaren 25aren eta 27aren artean egin zen, Alcaláko Unibertsitatean, lelo honen pean: "Trantsizio energetikoa, 1,5 °C helburu".

Zorionak bikote!

**Informazio gehiago:**

<https://www.aeee.es/>

*Cristina Pizarro-Irizar*

## Borja Solis, Enpresa Zuzendaritzako Master Amaierako Lan onenaren bigarren saria



**Borja Solís Vélez** Enpresa Zuzendaritza Berrikuntzaren eta Internazionalizazioaren Ikuspegitik -+Masterreko ikasleak **bigarren saria lortu du master amaierako lanen (MAL) eta titulu propioen amaierako lanen (TPAL) sarien deialdian.** Sariak tokiko eta nazioarteko erakunde eta enprekin elkarlanean antolatu dira.

MAL sarituak *La empresa del siglo XXI: Ética y Responsabilidad Social. Un estudio exploratorio* du izena, eta Amaia Maseda irakasleak zuzendu zuen 2020-2021 ikasturtean.

UPV/EHUK bigarren urtez jarraian antolatu ditu sariak, gure unibertsitateak enprekin eta erakundeekin duen harremana ikustera emateko, gizarteari ematen dion zerbitzuaren zati gisa, eta, horrez gain, ezagutza sortzeko eta transferitzeko eragile bultzatzailer gisa eta garapen jasangarria sustatzen duen erakunde gisa duen eginkizuna indartzeko. Aurtengo deialdian 58 hautagaitza aurkeztu ziren guztira; horietatik 21 hautatu ziren, eta Borjak bigarren saria lortu zuen.

*Amaia Maseda*

## ELENA CATALÁN eta ERNESTO LÓPEZ, Docentia eta Hamilton sariak

Espainiako Historia Ekonomikoaren Elkarteak **Earl J. Hamilton 2022 Saria** (espainiarrak ez diren aldizkarietan 2021an argitaratutako artikulu onenari emandakoa) eman die **Ernesto López Losa** eta **Santiago Piquero Zarauz** (duela gutxi erretiratu) Politika Publiko eta Historia Ekonomikoko saileko irakasleei, argitaratutako *Spanish Subsistence Wages and the Little Divergence in Europe* (1500 – 1800), *European Review of Economic History* (2021, 25, 1, pp. 59–84) artikuluagatik.




Pandemiaren ondorioz bi urteko atzerapenarekin, 2020-2022 AEHEren urteko sari-banaketan, Ekonomia Historiako irakaskuntzaren hobekuntzan eta berrikuntzan egindako ekarpenagatik **2020 Docentia** saria jaso zuen **Elena Catalanek**.

Ernesto López



## Miguel Ángel Blanco, ETAk bahitu eta hil zuenetik 25 urte



Ekonomia eta Enpresa Fakultatea,  
Sarriko, Blanco Garrido eraikina  
2022/07/13





**María Paz Espinosa**, UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Análisi Ekonomikoko saileko katedraduna, **Gizarteratze, Gizarte Segurantzza eta Migrazio Ministerioaren gizarteratze ibilbideei lotutako Batzorde Etikoko kide** izendatu dute.

Batzorde Etikoa **Gizarteratze eta Aurreikuspen Helburuen eta Politiken Idazkaritza Nagusiari** atxikitako erakunde bat da, eta bere xedea da pixkanaka kultura etiko bat sortzen laguntzea, beste erakunde batzuekin egindako taldeko eta sareko ardatz gisa. Funtsean, helburu du gizarteratze ibilbideak aplikatzen esku hartzen duten eragileei aholkularitza, sentsibilizazioa, analisia eta eztabaidarako gunea ematea, esku hartze horretan sortzen diren gai etikoei dagokienez, eta eragina izango du bai haien kalitatean bai ibilbide horietan parte hartuko duten pertsonen eskubideetan.

CSICeko Luis Millerrek (presidentea) eta Andaluziako Loyola Unibertsitateko Pablo Brañasek (batzordekidea) ere osatzen dute **Batzordea**.

*María José Gutiérrez*

## MARÍA PAZ ESPINOSA izendatu dute *Gizarteratze, Gizarte Segurantzza eta Migrazio Ministerioaren gizarteratze ibilbideei lotutako Batzorde Etikoko kide*

## MARÍA PAZ ESPINOSA Zientzia Moral eta Politikoen Errege Akademiako kide izendatua

**María Paz Espinosa** UPV/EHUko Análisi Ekonomikoko saileko katedradunak **Zientzia Moral eta Politikoen Errege Akademiako akademiko osoaren kargua hartu zuen.**

Mari Pazek **1. domina** hartu zuen, **José Antonio Sánchez Asiáin** hil ondoren hutsik geratu baitzen postu hori. Akademian sartzeagatiko diskurtsoan «**ekonomia ikerketaren joerak**» gaia jorratu zen, eta horren funtsezko bi alderdi aztertu zituen: ekonomia esperimenter baten garrantzia eta ekonomiaren ikerketan diziplina anitzeko ikuspegi bat ezarri beharra.

*María José Gutiérrez*


Nabarmendu zuenez, ekonomiaren alorrean «gauza asko pizgarrietara mugatzen dira. Baina portaeraren ekonomiak agerian utzi du finantza pizgarriei balio handiegia ematen zaiela batzuetan, arau sozialak oso garrantzitsuak direla eta hori kontuan hartu behar dela politikak diseinatzeko». Esteka honetan dago elkarriketarako sarbidea.

**Julio Segura Sánchez irakasleak erantzun zion Akademiaren izenean.**



# ALBERTO ANSUATEGI

## izendatu dute Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintzako zuzendari



**Alberto Ansuategi**, UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Análisi Ekonomikoko saileko (ANEKO) irakasle titularra, **Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintzako zuzendari** izendatu dute.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza epe ertaineko politika ekonomikoaren gidalerroak eta orientabideak prestatzeaz arduratzen da, besteak beste. Helburu horrekin, Jaurlaritzaren plangintza ekonomikoak bildu beharko dituen tresnak eta edukiak definitzeaz eta lantzeaz arduratzen da, bai eta programa eta politika publikoen ebaluazioa sustatzeaz eta bultzatzeaz ere.

**Ansuategi** Ingurumen Ekonomiako doktorea da New Yorkeko Unibertsitatean. Aurretik, Eusko Jaurlaritzako Politika Zientifikoko zuzendaria izan zen

(2005-2009), eta aldi horretan hainbat ekimen diseinatu eta abiarazi zituen. Ekimen horien artean, honako hauek nabarmendu behar dira: Ikerbasque fundazioa eta talentua erakartzeko programa, Bikaintasuneko Ikerketa Zentroen Euskal Sarea (BERC) eta euskal unibertsitate sistemako ikertaldeentzako oinarritzko finantzaketarako laguntzen deialdia. Gainera, Espainiako Adituen Batzordeko kide izan da Pertsonen Programa Espezifikoan (Europako Batzordearen 7. esparru programa, 2008), Zientzia eta Teknologiaren Kontseilu Nagusiko kide (2006-2009), Ikerketa Jarduera Ebaluatzeko Espainiako Batzordeko kide (CNEAI, 2006-2009), Ikerketarako Euskal Kontseiluko kide (2007-2009) eta Euskadiko Unibertsitate Kontseiluko kide (2006-2009).

*María José Gutiérrez*

## 25 urteko zerbitzua eta erretiroa aitortzeko ekitaldia

Uztailaren 5ean, Areto Nagusian, aitoren ekitaldia egin zitzairen 2020an eta 2021ean erretiroa hartu zuten lankideei eta unibertsitatean lanean 25 urte bete zituztenei.

Une atsegina izan zen, aukera eman zirena berriz ere elkartzeko pandemia garaian mugari horietara heldu ziren baina behar den moduko ospakizunik izan ez zuten lankideekin.

Erretiroa hartutakoak: Susana Díez, Sara Fernández de Bobadilla, Isabel Perea, Carmen Puerta, Vidal Ruiz y Amaia Ruiz.

25 urte betetakoak: Kepa Apellaniz, Efen Areskurinaga, Izaskun Ipiñazar, Maite Ruiz, Unai Tamayo, Esther Vidal y Humberto San Miguel





## Vicky Ateca Amestoy



Vickyk utzi gaitu, ustekabea eta bat-batean. Goizegi, bizitzaren eta errendimendu intelektualaren betetasunean, eta hainbeste proiektu burutzeke.

Vicky pertsona bikaina izan zen, ikertzaile bikaina eta irakasle bikaina, Mikroekonomia Aplikatuaren alderdi asko barne hartzeko gai, energia paregabearekin. Arte eta kulturako jendearen eta,

bereziki, Kultura Ekonomiaren babesle zen beti. Arlo horretan erreferente zen, eta nazioarteko aintzatespena jaso du kulturaren parte-hartzeari, kontsumo-ohiturei, kapital kulturalari eta teknologiaren eraldaketei buruz egindako ikerketengatik. Beti prest zegoen arriskuak hartzeko eta ikerketa-ildo berrietan murgiltzeko, hala nola Espazioaren Ekonomian. Originaltasuna, sakontasuna eta zorroztasuna izan ziren bere ikasketa guztien ezaugarri nagusiak, eta jarraitu beharreko adibide dira. Bere lan handiak gure oroimenean iraungo du, eta etorkizuneko ikertzaileentzako gida izango da.

Irakasle bikaina ere izan zen, eta Cultural Economics-eko irakaskuntza Master in Economics: Empirical Applications and Policies irakasgaiaren hautazko irakasgai gisa sartzera ausartu zen, programa aberasteko aukera emanaz eta ikasleei oinarri mikroekonomikoen ikuspegi zabal eta aplikatua emanaz. Ikertzaile gisa, lankide asko gidatu zituen, nazioarteko proiektuetan parte hartzen lagundu zuen ere, eta laguntza paregabea eskaini

zian bertara hurbiltzen ziren guztiei, kultura-sektorearen berezko gai ekonomikoei heldu behar zirelako.

Lagun aparta izan zen. Gaur egun, Analisi Ekonomikoko Saileko Irakasle Titularra zen, eta, segur aski, bizitzak horretarako aukera eman izan balio, zailtasunik gabe lortuko zituen bere helburu handinahienak. Berarekin irakaskuntza eta ikerketa partekatu dugunok fede eman dezakegu bere lan onaz eta bere ekarpen apartaz.

Azken batean, Vicky lanerako prest zegoen beti, unibertsitateko irakaslea izan zen beti, eskuzabala edozein lekutan. Gure unibertsitateak gidatzen duen Eman Ta Zabal Zazu goiburuari leial, bere presentziak eta ekarpenek gure unibertsitatea handitzen dute eta ezagutu dugunon bizitza aberasten dute.

*María Paz Espinosa,  
María José Gutiérrez,  
Amaia Iza eta Beatriz Plaza*

## Miguel Ángel Martínez Sedano

Joan den azaroaren 30ean gure lankide Miguel Ángel Martínez Sedano hil zen, UPV/EHUren Analisi Ekonomikoa Saileko irakasle titularra.

Miguel Ángel ikertzaile bikaina zen. 1997an doktorego tesia defendatu zuen, Gonzalo Rubioren zuzendaritzapean egindakoa, eta aditu bihurtu zen aktiboaren balorazioan, inbertsio kolektiboko erakundearen kudeaketaren ebaluazioan eta finantza merkatuen mikroegituran. Arlo horretan, artikulu zientifiko ugari argitaratu zituen, eta masterreko eta doktoregoko ikasle askori transmititu zizkien bere ezagutzak eta jakintzak. 5 doktorego tesi zuzendu zituen, eta horien ardatza izan zen aktiboaren balorazioan eta inbertsio funtsen kudeaketan sakontzea.

Baina ikertzailea izateaz gain, Miguel Ángel irakasle bikaina ere izan zen. UPV/EHUren Banka eta Finantza Kuantitati-boak Unibertsitate Masterraren arima izan zen (master hori Madrilgo Complutense Unibertsitatearekin, Valentziako Unibertsitatearekin eta Gaztela-Mantxako Unibertsitatearekin batera ematen da). Masterrean egin zuen lana miresga-

ria izan zen, eta erabakigarria arrakasta lortzeko. Atsegina eta eskuzabala zen, eta modu batera edo bestera QF Masterrari (horrela deitzen diogu denok) lotutako guztiak zaintzen zituen. Baina bereziki ikasleez arduratzen zen, eta lagundu eta jarraipena egiten zien. Miguel Ángelek aitortzen zuenez, kontaktu horrek bete egiten zuen, eta horixe zen baliotsuena berarentzat. Ikasleek maite zuten, eta gaur negar egiten dute harengatik, faltan botako baitute.

Baina, gauza guztien gaineratik, Miguel Ángel lagun ona eta pertsona bikaina zen; eskuzabala zen, beti zegoen laguntzeko prest, erakuskeriarik gabe, eta adiskidetzeari bilatzen zuen, baina erabakitzailea izateari utzi gabe. Valentziako Unibertsitateko lankideek Miguelen eskuzabaltasuna dute gogoan "...lan arloan (beti arduratzen zan guztiaz), baina jarrera bera zeukan pertsonekin: lankideekin, irakasleekin, ikasleekin..." Eta beharbada, Miguel Ángel ondoen definitzen duten hitzak gure lankide Txema Usateguik esandakoak dira; izan ere, hauxe adierazi zuen gure WhatsApp-eko taldean: "asko ikasi dugu Mi-



guelengandik, bere izaeratik eta egiteko modutik. Faltan botako dugu, baina oroitzapen eta ondare pertsonal eta akademiko bikaina utzi dizkigu". Gutariko inork ez du besterik gaineratu nahi izan.

*Arantza Gorostiaga (UPV/EHU),  
María José Gutiérrez (UPV/EHU),  
Amaia Iza (UPV/EHU),  
Mikel Tapia (Karlos III.a Unibertsitatea)*

# SARRIKO

**Ekonomia eta Enpresa Fakultatea    Facultad de Economía y Empresa**



emari ta zabal 2021  
Universidad del País Vasco    Euskal Herriko Unibertsitatea

NAZIOARTEKO  
BIKANTASUN  
CAMPUSA  
CAMPUS DE  
EXCELENCIA  
INTERNACIONAL